

### AZTERKETARAKO ARGIBIDEAK

Probaren iraupena: 1 ordu

Hona hemen azterketaren egitura eta atal bakoitzaren balorazioa:

Hiru galdera —bakoitza 2,5 puntuko baliokoa— eta

Aukera anitzeko 10 galdera (bakoitzak lau erantzun ditu aukeran, eta bakarra da zuzena); guztira, 2,5 puntu. Erantzun zuzen bakoitza 0,25 punturekin baloratuko da; erantzun oker bakoitzak 0,1 puntu kenduko ditu, eta galdera bat erantzun gabe uzteak ez du punturik emango. Atal honetako puntuazio osoa ez da inoiz negatiboa izango.

#### 1. Galdera (2,5 puntu)

- a) Euskal industriako negozio-eredu gakoetako bat **zerbitizazioa** da (produktuen eskaintza balio handiko zerbitzuekin hibridatzea). Azaldu nola funtzionatzen duen negozio-eredu horrek. (1,25 puntu)
- b) **4.0 Industria** euskal industria-ehunaren oinarri nagusietako bat da gaur egun, ekoizpen-prozesuetan teknologia aurreratuak txertatzeari esker. Azaldu zertan datzan negozio-eredu hori. (1,25 puntu)

## 2. Galdera (2,5 puntu)

Neska ekintzaile bat *start-up* bat martxan jartzea aztertzen ari da. Haren estimazioen arabera, proiektuak 100.000 euroko hasierako inbertsioa behar du. Inbertsioaren aurreikusitako iraupena lau urtekoa da, eta proiektuari lotutako diru-sarrerak eta ordainketak honako hauek dira:

Urteak	Diru-sarrerak	Ordainketak
1	30.000	10.000
2	50.000	15.000
3	75.000	25.000
4	150.000	50.000

- Kalkulatu Pay Back-a edo inbertsioa berreskuratzeko epea. (1,25 puntu)
- Zehaztu inbertsioa errentagarria den ala ez BEGaren irizpidearen arabera (Balio Eguneratu Garbia), eskatutako errentagarritasuna edo deskontu-tasa % 6 dela suposatuta. Urteko inflazio-tasa % 2 da. (1,25 puntu)

## 3. Galdera (2,5 puntu)

Haizea SA enpresak ardatz bertikaleko aerosorgailu txikiak egiten ditu, etxean erabiltzekoak. Urteko ekoizpen-kostuak honako hauek dira: fabrikaren alokairua, urtean 80.000 €; langile finkoen kostua, urtean 70.000 €. Unitateko kostu aldakorra 200 € da aerosorgailu bakoitzeko, eta salmenta-prezioa 400 € unitateko.

- Defini ezazu errentagarritasun-atalasearen kontzeptua, eta kalkulatu haren balioa kasu honetan. (0,75 puntu)
- Irudikatu grafikoki kasu honetako errentagarritasun-atalasea. (0,75 puntu)
- Enpresak 1.000 aerosorgailu ekoizten eta saltzen baditu unitateko 400 €-ko prezioan, zehaztu enpresak zer emaitza lortuko duen irabaziak edo galerak adieraziz. (0,5 puntu)
- Enpresak bere gehieneko ekoizpen-ahalmena erabiltzen badu, hau da, urtean 2.000 aerosorgailu, zein izan beharko luke aerosorgailu bakoitzeko gutxieneko salmenta-prezioak galerarik ez izateko? (0,5 puntu)

---

**Aukera anitzeko galderak (2,5 puntu)**

**1. Zer da langabezia-tasa?**

- a) Lan egiten ez duten eta enplegurik bilatzen ez duten pertsonen ehunekoa
  - b) Herrialde batean lanik gabe dauden pertsonen kopuru osoa
  - c) Enplegurik eduki ez eta bilatzen duen biztanleria aktiboaren ehunekoa
  - d) Lan egiten duen biztanleria osoaren ehunekoa
- 

**2. Zer neurtzen du Barne Produktu Gordinak (BPG)?**

- a) Familien errenta osoa
  - b) Herrialde batean ekoiztiko azken ondasun eta zerbitzuen balio osoa
  - c) Ekonomiako prezioen maila
  - d) Ongizate sozialaren maila
- 

**3. Zer da kostu finko bat enpresa batentzat?**

- a) Ekoizpen-bolumenaren araberakoa den kostua
  - b) Irabaziak daudenean bakarrik sortzen den kostua
  - c) Ekoizpena aldatu arren aldatzen ez den kostua
  - d) Behin bakarrik ordaintzen den kostua
- 

**4. Zer eragin izan ohi du diru-politika murriztaile batek?**

- a) Inflazioa handitzea
  - b) Interes-tasak murriztea
  - c) Kontsumoa sustatzea
  - d) Inflazioa murriztea
- 

**5. Maniobra-funts positibo batek adierazten du enpresa(k):**

- a) Galerak dituela
  - b) Ezin dituela epe luzeko zorrak ordaindu
  - c) Epe laburreko betebeharrei aurre egin diezaikeela
  - d) Kanpoko finantzaketaren mende soilik dagoela
- 

**6. Zein negozio-eredu oinarritzen da produktuak edo zerbitzuak doan eman eta publizitatearen bidez diru-sarrerak lortzean?**

- a) Harpidetza
- b) Freemium
- c) Publizitatea
- d) Frankizia

---

**7. Honako hauetako zein da enpresarentzat lan-kostu bat?**

- a) BEZ jasanarazia
- b) Amortizazioak
- c) Enpresaren kontura diren gizarte-kotizazioak
- d) Maileguen interesak

---

**8. Zer dira esportazioak?**

- a) Atzerrian ondasunak erostea
- b) Ondasunak edo zerbitzuak atzerrian saltzea
- c) Salgaien barne-garraioa
- d) Beste herrialde batean ekoiztea

---

**9. Zein da enpresaren nazioartekotzearen abantaila bat?**

- a) Merkatu nazionalarekiko mendekotasun handiagoa
- b) Dibisa-arriskua handitzea
- c) Merkatu eta bezero berrietara iristea
- d) Administrazio-kostuak handitzea

---

**10. Zein adierazlek neurtzen du errentagarritasuna baliabide propioen arabera?**

- a) Likidezia
- b) Errentagarritasun ekonomikoa
- c) Zorpetzea
- d) Errentagarritasun finantzarioa